

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 21a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguak (4. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (6. or.).
- IV. Konklusioak (6. or.).
 - IV.1. Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguen gaineko txosteneko gomendioen jarraipena (7. or.).
 - IV.2. Amaierako konklusioa (10. or.).
1. eranskina. Tracasa Instrumental SLren organigrama (11. or.).
2. eranskina. Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguen kudeaketari aplikatzekoa zaion arau-esparrua (12. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urriaren 13ko bilkuran, erabaki zuen Legebiltzarrari fiskalizazio txostena eskatzea gai honi buruz: *“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020an TRACASA INSTRUMENTAL SLri egindako enkarguak”*.

Kontuen Ganberak 2020ko ekainean txostena eman zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (hemendik aurrera, NFKA) 2017-2019 aldian Tracasa Instrumental SL sozietate publikoari (hemendik aurrera, Tracasa) egindako enkarguei buruz. Txostenean gai hauek aztertu ziren:

- Enkarguak kudeatzeko prozedura.
- 2017-2020 aldian Tracasak emandako zerbitzuak fakturatzeko tarifen kalkulurako prozedura.
- 2017an eta 2018an Tracasari eskatutako enkargu eta bestelako lanen fakturak, egiaztatuko ea fakturaturako lanordua beteta zeuden eta onetsitako tarifen arabera ordaindu ziren.
- 2018an Tracasak fakturaturako gainerako kontzeptuen egokitasuna eta justifikazioa, hirugarrenei egindako kontratazioak barne.
- 2018an Tracasari eskatutako enkarguetan, aurrekontuan sartutako ordu eta zenbatekoen eta fakturazioaren artean, desbideratzerik egon zen.

Txosten honek lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarrenen, Tracasarekin eta hari egindako enkarguekin lotutako alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak txosten honen helburuak eta norainokoa deskribatzen ditu, eta laugarrenak egindako lanaren konklusioak jasotzen ditu. Txostenak bi eranskin ditu: Tracasaren organigrama, eta sozietate horri egindako enkarguen kudeaketari aplikatu beharreko arau-esparrua.

Landa-lana 2021eko ekainetik azarora bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik, sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoeekin eta administratiboekin lankidetzan.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakolari jarraituz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizen Tracasa Instrumental SLko zuzendari kudeatzaileari eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari, alegazioak aurkez zitzaizen.

Kontuen Ganberak ezarritako epean ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, epea iraganik, txosten hau behin betikoa bilakatu da.

Eskerrak ematen dizkiegu Tracasako eta NFKAko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. TRACASA INSTRUMENTAL SLri EGINDAKO ENKARGUAK

Tracasa Instrumental SLren sorrera

Trabajos Catastrales SA sozietatea 1982an eratu zen sozietate anonimo gisa. 2016ko martxoan, NFKAk erabaki zuen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SL (NEKP) sozietateari baimena ematea Trabajos Catastrales SA sozietatea bi sozietatetan banatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Kontratazio Publikoari buruzko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren ondorioz.

Baimen horren ondorioz, 2016an erabaki zen Tracasa Instrumental SL eratzea (Tracasa, hemendik aurrera) Administrazioaren enkarguak hartzeko. Bestalde, Trabajos Catastrales SA sozietateak (Tracasa Mercado, hemendik aurrera) ente instrumentala izateari utzi zion, eta bere jarduera merkatuan zentratu zuen.

2019ko azaroan, legealdi-aldaketaren ondoren departamentuak berrantolatu eta gero, Tracasa Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari atxiki zitzaion, eta Tracasa Mercado Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari.

Tracasaren egungo organigrama oroitidazki honekin batera doan 1. eranskinean jasotakoa da; funtsean, zerbitzu korporatiboek (administrazioa, arlo juridikoa, etab.) eta lau departamentuk osatzen dute. Departamentuak hauek dira: Ingeniaritza, Softwarea eta Informazio Sistemak; Lurralde Informazioko Sistemak; Zorren Kudeaketa, eta Katastroa eta Informazio Zerbitzuak

Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguei aplikatzekoa zaien araudia.

23/2014 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (NFKA, hemendik aurrera) ente instrumentalei egindako enkarguak arautzen ditu; zehazki, honako hauek dira enkarguen araubide juridikoaren ezaugarriak, besteak beste:

- Ente instrumentalak behartuta daude agintzen zaizkien lanak eta jarduerak egitera, eta enkargua egiten duen erakundeari dagokio enkargua behar bezala gauzatzeko delako gainbegiratzea.
- Enkargua jaso eta bost egun naturaleko epean, ente instrumentalak justifikatu beharko du badituela enkargua egiteko behar diren bitartekoak; hirugarrenen parte-hartzea behar izanez gero, bai lizitazioa bai exekuzioa kontratazioari buruzko foru araudiaren mende egonen dira, eta hirugarrenei egindako kontratazioek ezin izanen dute enkarguaren prezioaren ehuneko 50 gainditu. Salbuespen gisa, muga hori gainditu ahal izanen da, baina zehatz-mehatz justifikatu beharko da hori.
- Enkargua egiten duen entitateak aldeztatik onetsitako aurrekontuan agertzen diren prezioekin zehazten da enkarguaren prestazioaren zenbatekoa, NFKAk ezarritako tarifa batzuen arabera.
- Enkargu bat egin behar duen departamentuak edo erakunde autonomoak espediente bat bideratu beharko du, eta espediente horretan jasoko dira administrazio-kontratu-erako ezarritakoen analogoak diren izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak, kontrolakoak eta gastua onestekoak.

2. eranskinean, ente instrumental horri egindako enkarguei aplikatu beharreko esparru arautzailea jasotzen dugu.

Tracasari egindako enkarguengatik NFKAk 2021ean izandako gastua

Tracasari egindako enkarguengatik NFKAk 2018-2021 aldian izan duen gastua honako hau da, antolaketa-unitateka:

	2018	2019	2020	2021 ¹	Guztira
Nafarroako Foru Ogasuna	6.112.533	6.081.808	7.385.233	8.126.233	27.705.807
Landa Gar. eta Ingurum. Dep.	2.936.368	3.122.901	2.998.772	3.242.633	12.300.674
Lehend., Berd., Funtz. Publ. eta Barne Dep.	2.858.295	3.171.006	1.412.793	1.698.788	9.140.882
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	1.400.034	1.609.534	1.777.448	2.067.284	6.854.300
Unib., Berrik. eta Erald. Dig. Dep.	-	-	2.341.669	2.658.188	4.999.857
Garapen Ekonomikorako Dep.	1.454.730	1.275.569	337.077	515.717	3.583.093
Lur. Kohesiorako Dep.	-	-	884.680	1.290.737	2.175.417
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	441.121	400.253	351.459	477.591	1.670.424
Migr. Polit. eta Justiziako Dep.	-	-	599.565	755.641	1.355.206
Herritarrekiko Harremanetako Dep.	616.227	592.314	17.156	12.876	1.238.573
Ogasun Departamentua	155.568	198.912	157.368	164.562	676.410
Hezkuntza Departamentua	205.072	150.000	155.059	77.431	587.562
Lur. Antol. eta Etxeb. Departamentua	-	-	109.712	135.163	244.875
Euskararen Nafar Institutua	37.451	31.517	39.813	28.445	137.226
Eskubide Sozialetako Departamentua	5.077	3.379	-	70.077	78.533
Kultura eta Kirol Departamentua	12.791	12.715	-	2.607	28.113
Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua	3.710	-	660	-	4.370
Guztira	16.238.978	16.649.908	18.568.462	21.323.973	72.781.321

Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Tracasak egindako jarduerarengatik NFKAk 2021ean 21,32 milioiko gastua egin zuen, 2018an eta 2020an baino ehuneko 31 eta ehuneko 15 handiagoa, hurrenez hurren.

- 2018tik 2021era bitartean Foru Administrazioak 73 milioi gastatu ditu Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguetan; funtsean, ingeniariaren, softwarearen eta informazio sistemen arloko lanak izan dira. Aurreko urtean gastu hori 21 milioikoa izan zen, eta horietatik zortzi Foru Ogasunari dagozkio. Enkargu horietakoak dira zorrak kudeatzea eta toki entitateei tributu gaietan laguntzea. Hiru milioi pasatxo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari dagozkio, Tracasak laguntza teknikoak ematen baitio Europako laguntzak kudeatu eta kontrolatzeko, besteak beste. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2,6ko milioiko enkarguak egin zituen, eta beste bi milioi Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagozkio.

- 2018-2021 aldiko gastua aztertuz gero, Nafarroako Foru Ogasuna da Tracasari egindako enkarguetan gastu handiena egin zuen antolaketa-unitatea: guztira 27,71 milioi. Ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua eta Lehendakartzako, Berrikuntzako, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentua datoz, hurrenez hurren 12,30 eta 9,14 milioiko gastua egin baitzuten aipatu aldian. Hiru antolaketa-unitate horien gastua aldi osoan egindako guztizko gastuaren ehuneko 68 da.

- 2021eko gastuari dagokionez ere Nafarroako Foru Ogasuna eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua dira gastu handieneko antolaketa-unitateak, 8,13 eta 3,24 milioirekin, hurrenez hurren. Kasu honetan, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua gastu handieneko antolaketa-unitateetan hirugarrena da, 2,66 milioiko zenbatekoarekin. Hiru unitate horien gastua 2021ean egindako gastu osoaren ehuneko 66 da.

¹ 2021eko gastua da SAPen orain arte behin-behinean kontabilizatutakoa.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua izan da jarraipena egitea jakiteko noraino bete diren Tracasari egindako enkarguez Kontuen Ganberak 2020ko ekainean emandako txosteneko gomendioak.

Gure lanaren denbora-esparruak 2020-2021 aldia hartzen du, eta Ganbera honek 2020ko txostenean egin zituen gomendioek osatzen dute gure lana. Horretarako informazio hau aztertu dugu:

- Tracasari 2020an eta 2021ean egindako enkarguekin lotutako gastua.
- Tracasari 2020an eta 2021ean egindako enkarguak.
- Tracasaren Navisioneko datu-basea, 2020koa eta 2021eko azarora artekoa.
- Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiaren (EDZN, hemendik aurrera) GesHuman datu-basea, 2021eko urtarriletik azarora bitartekoa.
- Tracasak NFKAri eta haren erakunde autonomoei 2020an eta 2021eko azarora arte igorritako fakturen zerrenda.

IV. KONKLUSIOAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

Enkarguak kudeatzeko ardura halakoak egiten dituzten NFKAren antolaketa-unitateena da.

Antolaketa-unitate horiek bermatu behar dute enkarguak kudeatzeko jarduerak, lotutako aurrekontu-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin. Halaber, urteko kontuak prestatu eta aurkezteko beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarri behar dituzte, iruzurratik edo akatsengatik oker materialik egin gabe.

Tracasaren erantzukizuna da enkarguak egoki kudeatzea, fakturazioa barne, eta horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontrolako sistemak ezarri behar ditu, jardueran ez dadin oker materialik egin iruzurraren edo akatsen ondorioz.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da konklusio bat azaltzea Ganbera honek 2020ko ekaineko txostenean egindako gomendioen betetze mailari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizatorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-eskakizunak betetzera eta auditoretza halako moduz planifikatu eta egitera non ezagutza egokia lortuko baitugu gomendioak betetze aldera erabilitako prozedurez, kasua bada, bai eta taxuzko ziurtasun bat ere, informazioa oker materialik gabekoa eta alderdi adierazgarri guztietan araudi indardunaren arabera izateari buruz.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du, ataratako konklusioei funtsa emateko.

IV.1. TRACASA INSTRUMENTAL SLRI EGINDAKO ENKARGUEN GAINEKO TXOSTENEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Gomendio baten betetzearen maila honako irizpide hauen arabera kalifikatu dugu:

Kategoria	Deskribapena
Osoan edo funtsean aplikatua	Baldin eta zuzentze-neurriak –zentzuzkoak eta proportzionalak– hartu badira, horri buruzko behar adinako ebidentzia egonik, modua ematen dutenak irizteko ezen gomendioa eraginkorra izan dela eta ez dela ebazkizun geratu munta nabarmeneko inolako gairik.
Partzialki aplikatua	Baldin gomendioa aintzat hartu bada, baldin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko urratsak egin badira, baina hasierako fasean baino ez, haien parte batean bakarrik edo alderdiren batean baino ez, eta, ondorioz, gomendioa moduz bete izandakotzat jo ezin izanik.
Aplikatu gabea	Ez bada egin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko jarduketarik, edo eginiko jarduketak ez badira aski edo ez badira egokiro egin, halako moldez non gomendioak aplikatu gabe jarraitzen duen.
Baliogabea egungo esparruan	Txostena egin zenean balioduna eta egokia izan arren, egungo testuinguruan ezin aplikatuzkoa den gomendioa, horretarako moduko zirkunstantziarik ez dagoenez edo txostena egin zen uneko egokiera bera gertatzen ez denez.
Egiaztatu gabea	Enteak onartu egin du gomendioa, are aplikatu eta zuzendu, baina froga gehigarriak beharko lirateke azaldutakoa egiaztatzeko, eta horrek lanaren norainokoa gaindituko luke.

Ondoren, egindako gomendioetako bakoitzean Tracasak eta NFKAk lortu dituzten emaitzak erakutsiko ditugu.

IV.1.1. Tracasarentzako gomendioak

Ganbera honek 2020ko ekaineko txostenean gomendio hauek egin zituen Tracasari aplikatzeko:

- *Proiektuetan enkarguak eta beste lan batzuk argiro eta ordenaz banatzea, proiektu bera enkargu eta/edo lan desberdinetan sar ez dadin, honako hauek errazago egin ahal daitezen: egin beharreko lanak identifikatzea, orduak egozte, faktura egitea eta NFKAk ondoren kontrola egitea.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, egiaztatu dugunez, oraindik ere Tracasan badira hainbat enkargutakoak diren proiektuak², eta horrek a priori zaildu egiten du lan orduak egozte, faktura egitea eta gerora NFKAk kontrolatzea. Hala ere, Navisionen bertsio berrian desadostasunen txostena egin daiteke eta horrek eragotzi egiten du egindako lan orduak baino gehiago fakturatzea.

- *Proiektu batean lan egindako orduak zuzenean egozte Navisionen, edo datuak Navisionen iraul ditzakeen beste aplikazio batean.*

Gomendio hori 2022ko urtarriletik aurrera aplikatu da. Hala, proiektu batean parte hartzen duten pertsonetako bakoitzak zuzenean egozten ditu egindako lan orduak aplikazio batean, eta gero aplikazio horrek Navisionen iraultzen ditu datuak.

- *Enkargu bakoitzerako fakturazioa automatizatzea, Navisioneko ordu egozpenak soilik kontuan hartuta eta ahal den neurrian eskuzko esku-hartzea saihestuz, akatsak saihesteko.*

² Sozietate horren lan-unitateak proiektuak dira. Proiektu batek honako hauek izan ditzake: enkargu bat edo batzuk, 15.000 eurotik beherako fakturen kargura egindako lanak, edo baita bien arteko konbinazio bat ere. Era berean, enkargu bat hainbat proiektutakoa izan daiteke.

Gomendio hori funtsean aplikatu da, Tracasak fakturazio automatikorako modulu bat ezarri baitu Navisionen.

Egiaztatu dugu, oro har, horrela egiten direla fakturak, baina oraindik ere fakturazioa eskuz egiten dela zenbait kasutan, alegia, NFKAk eskatzen duenean aldeztatik fakturatzeko, norma-lean urte amaieran, lan-partea erregistratu baino lehen; eta proiektu berean hainbat salmenta-eskari (jasotako hainbat lan-eskari) daudenean, Navisionek ezin baitu zehaztu lan egindako ordu bakoitza zein salmenta-eskariri dagokion.

- *Fakturretan enkargua edo dagokion kontrafaktura identifikatzeko kode bat sartzea beti.*

Gomendio hori aplikatu egin da. Izan ere, egiaztatu dugunez, enkarguen kasuan beti dago identifikazio kode bat fakturretan; kontrafakturen kasuan (15.000 eurotik beherako zenbatekoa duten fakturak) ez da identifikazio koderik jartzen, NFKAk ez dielako halakorik esleitzen lan-eskari horiei, baina egindako lanen azalpena jartzen da, kontrafaktura bakoitza dagokion eskariarekin lotzea ahalbidetzen duena.

- *Dauden kobrantza aurreratuak erregularizatzea eta figura hori fakturazioan erabiltzeari uztea.*

Gomendio hori funtsean aplikatu da. Baziren 34 proiektu kobrantza aurreratuekin; egiaztatu dugu 31 proiektutan aurreratuta kobratutako zenbatekoak erregularizatu egin direla lan orduak eginenez, azpikontratazioekin (Tracasa Mercado barne) edo beste gastu batzuekin, hori guztia kasuan kasuko zenbatekoa NFKAri fakturatu gabe. Egiaztatu dugu, halaber, gainerako hiru proiektuetan NFKAri behar adinako itzulketak egin zitzaizkiola, eta, horrez gain, kobratu gabeko lan orduak egin zirela baliabide propioekin edo azpikontratazioen bidez.

Orobat egiaztatu dugu jada ez direla erabiltzen kobrantza aurreratuak, salbu eta NFKAko antolaketa-unitateetan hala eskatzen dutenean. Hala ere, Tracasak kobrantza aurreratuak erabiltzen jarraitzen du NFKAkoak ez diren bezeroekin.

- *Exekutatzeko den urteetan erabiltzea erabakitzen den lan-unitatearen kodea mantentzea, fakturatutako orduen betetze-mailaren jarraipena errazteko.*

Gomendio horrek ez du balio egungo egoeran. Kobrantza aurreratuak egiten zirelako eman zen, baina Tracasak jada salbuespenez baino ez du erabiltzen prozedura hori.

- *Dagokion lizitazio-prozedura aplikatzea, zenbatekoa kontuan hartuta, hirugarrenei kontratuak egiteko.*

Gomendio horrek ez du balio egungo egoeran, Tracasak Tracasa Mercadorekin egiten zituen kontratazioak zituelako xede.

Hain zuzen, Tracasari egindako enkarguei buruzko txostena egin genuen garaian, Tracasak Tracasa Mercadori egiten zizkion kontratazioei kasuan kasuko lizitazio-prozedura egokia aplikatu behar zitzaien. Baina 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak (foru lege hori 2020ko abenduaren 31ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen) aldatu egin zuen Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua, eta honela idatzita gelditu zen:

“4. Era berean, foru lege honen aplikaziotik kanpo geldituko dira adjudikazio botere berak kontrolatzen dituen pertsona juridikoen arteko kontratuak, betiere kapital pribatuaren zuzeneko parte-hartzerik ez badago kontratuaren adjudikazioa jasotzen duen pertsona juridikoan.”

Aldaketa horren ondorioz, kontratazio publikoari buruzko araudiaren aplikaziotik salbuetsita leudeke Tracasak Tracasa Mercadorekin egindako kontratazioak eta, aipatu dugun bezala, gomendioa jada ez litzateke aplikatzekoa.

Ganbera honen iritziz, kontratazioari buruzko araudiaren aldaketa hori ez dator bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoarekin. Izan ere, 12. artikulua horren 2. apartatuaren arabera, botere adjudikatzaile beraren menpekoak diren pertsona juridikoen arteko kontratazio publikoari buruzko arauen aplikaziotik kanpo geldituko da soilik bi pertsona juridiko horiek 12. artikuluan 1. apartatua ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean; Tracasa

Mercadok ez ditu betetzen baldintza horiek, bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago sektore pribatuarentzat egiten duelako.

- *Fakturazioan berariaz sartzea hirugarrenei egindako kontratazio guztiak.*

Gomendio hori bere osoan aplikatu da, hirugarrenei egindako kontratazio guztiak espresuki sartu baitira NFKAri igorritako fakturretan.

IV.1.2. NFKArentzako gomendioak

Ganberaren 2020ko ekaineko txostenak bazituen NFKArentzako gomendioak ere; ondoren adieraziko dugu zenbateraino bete den haietako bakoitza.

- *Gaur egun enkarguen bidez behin eta berriz gauzatzen diren beharrak gauzatzeko modurik ekonomikoena, eraginkorrena eta efizienteena zein den aztertzea.*

• *Aztertzea sozietate publikoetako langileek zer egoeratan ematen dituzten zerbitzuak etengabe Administrazioaren bulegoetan eta haren zuzendaritza funtzionalaren pean, eta ebaluatzea egiturazko premiak diren, administrazioa langileek artatu beharrekoak.*

- *Informatika-profileko langileen beharrak sakon aztertzea eta dagozkien plazak deitzea, NFKAren deskapitalizazioa saihesteko hain garrantzitsua den kudeaketa-eremu honetan.*

Hiru gomendio horiek partzialki aplikatu dira. Hala, EDZNk langileen egoerari buruzko txostena egin eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorri zien. Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia, gainera, atariko analisiak egiten ari da ikerlan bat egiteko NFKAko lanpostuei buruz eta lan-unitateek dituzten lan-zamei eta eginkizunei buruz.

- *Eman ez diren zerbitzuengatik aurreratutako ordainketen jarraipen zehatza egitea, eta, hala badagokio, hurrengo enkargua hasi baino lehen egin beharreko orduak egiteko edo dagozkion zenbatekoak itzultzeko eskatzea.*

Gomendio hori funtsean aplikatu da, egindako kobrantza aurreratuak erregularizatu egin baitira eta Tracasak aukera hori erabiltzeari utzi baitio.

- *Unean uneko enkarguak izapidetzea, aurrekontu-ekitaldian gauzatu ahal izateko, ordainketa aurreratuak saihesteko bi urteko enkarguak ezartzeko aukera kontuan hartuta.*

Gomendio hori funtsean aplikatu da. Izan ere, egiaztatu dugunez, enkargu bakar bat atzeratu da nabarmenki, eta hura 2021eko maiatzean jaso zuen Tracasak, nahiz eta 2021eko ekitaldi osorako enkargua izan.

- *Enkarguen exekuzioaren kontrola areagotzea, pertsona zehatzak eta betetako profila, lortutako helburuak eta horietan emandako orduak identifikatuta dituzten albaranak eskatuz.*

Gomendio hori aplikatu gabe dago txosten hau idazteko garaian, eta, oro har, ez da inon agertzen NFKAren kontrol jarduketak ugaritu egin direnik aurreko txostena eman genuenetik.

- *GesHuman aplikazioa erabiltzea EDZNk kudeatutako enkargu guztietan, enkarguaren identifikazioa jasota, Tracasak egindako lanaren kontrola errazteko.*

Gomendio hori aplikatu gabe dago txosten hau idazteko garaian. Izan ere, GesHuman aplikazioak ez du jasotzen zein enkarguri dagokion proiektu bakoitza. Nolanahi ere, aurreikusita dago ezarpenari 2022ko martxoan ekitea.

- *Baldintza-agirietan argi eta zehatz zehaztea enkargua langile-profil jakin batzuek egin behar dutela, beharrezkotzat jotzen den kasuetan; profilen kaudimen teknika funtsezkotzat jotzen ez bada, fakturazioa aurrekontuan jasotakoez bestelako profilen arabera onartzea, Tracasak dago-kion justifikazioa egin ondoren.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da. Izan ere, egiaztatu dugunez, gomendioan aipatutako informazioa NFKAk egindako enkarguetako batzuetan bakarrik jarri da baldintza-agirietan.

- *Irismenaren araberako enkargu jakin batzuk arautzen dituzten pleguetan helburuen definizio zehatzagoa ezartzea, lanaren lorpen-faseak identifikatzeko eta horietako bakoitzari baliabideak esleitzeko.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, bera aplikatu behar zuten baldintza-agirietan ez da ezarri helburuen definizio zehatzago hori.

- *Pleguetan jasotzea Tracasak fakturan adierazi behar duela kontratatutako hirugarrenaren izena, hala badagokio, fakturazioaren kontrola eta egindako azpikontratazioa errazteko.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da. Izan ere, ez da baldintza-agiri guztietan jaso gomendioan azaldutakoa, baina egiaztatu dugu Tracasak azpikontratazioak eta hirugarrenen izenak jaso dituela bere fakturretan.

IV.2. AMAIERAKO KONKLUSIOA

Tracasa tradizionalki NFKAren jardueran parte hartu izan duen sozietate publikoa da. Tracasari egindako enkarguak direla-eta NFKAk 2021ean 21,32 milioi gastatu ditu.

Kontuen Ganberak 2020ko ekainean txostena argitaratu zuen NFKAk Tracasari egindako enkarguei buruz, eta bertan zortzi gomendio jarri zituen sozietate horrentzat eta 11 NFKArentzat.

Egiaztatu dugu Tracasak gure gomendio gehienak bete dituela: nabarmen egin du hobera langileen lan orduak proiektuei egozten, egindako kobrantza aurreratuak erregularizatu ditu, eta hobera egin du, era berean, fakturazio prozesuaren automatizazioan.


NFKA ere gomendio gehienak betetzeko bidean dago, eta langile beharren analisia egiten ari da Tracasari enkargu iraunkorrak egiteko; enkargu horiek lehen baino bizkorrago izapidetzen ditu.

Beste gomendio batzuk bete gabe dauzka, ordea. Horien artean lehentasunezko zat jotzen ditugu honako hauek: NFKAk gehiago kontrolatzea fakturazioa, eta Tracasak fakturak automatizatzeko ahal den guztietan. Halaber, Ganbera honek uste du Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 8.4 artikulua egokitu behar litzaiokeela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Kontratazio Publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoari.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. TRACASA INSTRUMENTAL SLREN ORGANIGRAMA



2. ERANSKINA. TRACASA INSTRUMENTAL SLRI EGINDAKO ENKARGUEN KUDEAKETARI APLIKATZEKO ZAION ARAU-ESPARRUA.

- 2014/24/EB Zuzentaraua, otsailaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa kontratu publikoei buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 23/2014 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioen entitate instrumentalezako mandatuak arautzen dituenak.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2016ko martxoaren 9koa, Tracasa Instrumental SL sozietate publikoa eratze baimena ematen duena.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2016ko apirilaren 6koa, Tracasa Instrumental SL sozietate publikoari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ente instrumentalaren izaera aitortzen diona.
- 65/2016 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuari atxikitako Tracasa Instrumental SL ente instrumentalaren aldeko enkarguak kudeatzeko araubidea ezartzen duena.
- 73/2018 Foru Agindua, apirilaren 26koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Tracasa Instrumental SL ente instrumentalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei 2018rako egin beharreko enkarguetan bete behar diren baldintza ekonomikoen plegua onesten duena.
- 143/2018 Foru Agindua, azaroaren 23koa, Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariarena, Tracasa Instrumental SL ente instrumentalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei 2019rako egin beharreko enkarguetan bete beharreko baldintza ekonomikoen plegua onesten duena.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2019ko azaroaren 13koa, sozietate publikoak departamentuei atxikitzea ezartzen duena.